

ZINEMAGILE LEITZARRAK KOMEDIA GARRATZ BAT OSATU DU ELENA IRURETA ETA ANABEL ARRAIZAREKIN

Asier Andueza zinema musikalean ausartu da bere lehen film laburrarekin

■ Idoia Urbiola eta Unai Martinez produktore lanetan direla komedia musikal bat osatu du Asier Anduezak

■ El vestido izeneko film labur honek apenas du testurik; bera da gurean grabatu den lehen lan musikala

■ Elena Irureta, Anabel Arraiza, Isidoro Fernandez, Mario Arias, Esther Esparza, Maiken Beitia eta Onintza Orbegoza dira aktore

Miren Iriarte / Iruñea

BAI Asier Andueza zuzendari eta gidoigilea, baita Unai Martinez-Barranco eta Idoia Urbiola produktoreak ere, oso gustura azaldu ziren atzo *El Vestido* laburmetraiaren aurkezpenean. Euren lehenengo lana da eta ilusio handiz erakutsi zuten.

El Vestido musikal moduan egindako laburmetraia da, lan handiz eta diru gutxiarekin egin. Bere bizitza maite ez duen emakume heldu baten istorioa kontatzen du, bizi duena, eta bizi nahiko lukeena. Erosi ezin duen soineko batek bere bizitza aldatuko duela uste du, eta amets hori lortzeko edozer egiteko gai da protagonista.

Pertsonaia nagusiaren ametsak eta errealitatea tartekatuta egiten dira etengabe, eta musika, dantza eta janzkeraren bidez eszenatoki burugabea osatzen du. Musikalaren kanta eta dantzetan protagonistak bere baitan nahiko zukeena erakusten da.

Baina laburmetraiaren istorioa apala den arren, ez da hutsa», esan zuen Asier Anduezak. «Gaurko gizarteaz ari da, inbidiaz, soinekoa erosteko dirurik ez izateagatik barre egiten diote protagonistari,... hori ez da soinekoekin gertatzen, baina pisua erosi nahi izatean, bai».

Ikuspegi garratza

Esther Esparza aktorearen ustez laburmetraiak errealitatearen «ikuspegi garratza» ematen du. Kontsumo gizar-tearen ikuspegi gogorra da, telebistarekiko menpekotasuna, frustrazio sexualak, bakardadea,...». Eta hori guztia musika eta dantzaz, eta tonu erabat umoretsuan eka- rri dute hiru gazteek.

Lan zaila izan da laburmetraia egitea, eta orain komertzializatzea ere oso zaila izanen dute. Idoia Urbiolak



Asier Andueza, filmeko aktoreak alboan dituela, atzo Iruñean egin agerpenean.

JOSE LACALLE

Lehen musikala Euskal Herrian

■ GAUR egun erabat ahazturik dagoen generoa berreskuratu nahi izan du Asier Anduezak bere lehenengo lanean, musikala. «Istorioa xumea eta apur bat ergela zen, izaera eta gorputza emanen zion zerbait behar zuen, eta musikal moduan emateak oso ongi utzi du; genero musikala berreskuratzea oso polita litzateke».

Laburmetraian erabilitako musika guztia eta letra ere berariaz prestatu dute *El Vestido* laburmetraientzat. Eta Golden Apple Quartet taldeak euren erara emateko moldatu ditu kantuak.

Musikak eta koreografiak ere lan handia eman dute, eta Asier, Unai eta

Idoiaren arabera guztia aurrera ateratzeko ilusioa eta gogoa izan dira garrantzitsuena.

Diruz ere larri ibili ziren, nahiz eta Nafarroako Gobernua diru laguntza eman, eta baita ETBk ere. Gainera, Anduezak filmean aritu diren guztiei eskerrak eman zizkien egindako lanarengatik.

Zinemagintzari ematen zaizkion diru laguntzei buruz kexu ziren. Unai Martinezen esanetan, inoiz ez dira nahikoak; «Nafarroak potentzial handia du zinemagintzan, jende asko ari da lanean, baina guztiak kanpoan ari dira; hemendik alde egin behar da zinemagintzaz bizi ahal izateko».

esan zuenez kasik ez dago laburmetraiak ematen dituzten zine aretorik, «zinema jaialdietara bidali beharko dugu, eta saririk lortzera, agian jarriko dute hemen».

El Vestido Huesca eta Kanarietako jaialdietara bidali dute jada, eta orain zain dau- de. «Taldekideok azkenera arte arriskatu dugu guztia», esan zuen Asier Anduezak.

aranburu jauregia

TOLOSA

Felix Ortega
Koldo Sebastian
pintura

(otsailaren 25etik martxoaren 25era)

Teresa Vildosola
pintura

(otsailaren 25etik martxoaren 25era)

Ordutegia: jaietan eta astelehenetan izan ezik, 17:30 - 20:30
Sta. Maria Plaza, 4. Tel.: (943) 674811. Faxe: (943) 672622